

## Justiziaren bidezidorrak

*El Mundo del País Vasco*, 1991-11-15.

Corcuera ministraria gizon praktikoa da, bide luze-aspergarriak utzi eta bidezidorretatik jotzen du aise. Mendigoizalea balitz, konforme. Dendari balitz, berarentzat pisuko irabaziak. Futbolean ere balio du gola trebeki eskuarekin sartzea, arbitroak ezikusi egiten badu. Ba, trebetasun honetan maisu dela agertzen ari zaigu ministrari jauna, eta ofizioz argiketari denez, argindarra kontadoretik pasa gabe etxeratu ere egingo zuen inoiz. Baina hemen ez gara ari mendigoizalearen, dendariaren, futbolariaren edo argindar piska bat lekuz kanpotik hartu duen edozein epaitzen; ez edozein pertsona ere, baizik eta gobernu baten ministrariak, eta ez edozein Ministeritzako arduradunaz, pertsonak zigortzeko eta espetxeratzeko ahalmena duen agintariak baizik. Nik ez diot inori kalte larririk egin, dakidala, baina ez nuke Franco denboran gertatu zitzaidana beste inori, inori!, gertatzerik nahi, zeren eta hala edo honela pentsatzen nuelako, idazten nuelako ("¡ah, y escribe; claro, se ponen a escribir cualquier cosa!") ministraritza bertako hiru gizon etxean sartu eta bere bulegora galdera batzu egitera naramatela nire emazteari esan eta zuzenean Irungo kalabozoan sartu ninduten poltxikoak arindu ondoren. Gero geroakoak idazten zuenarentzat eta familia osoarentzat. Orduan hau legebarruan zegoen bidezidorra zen. Gaurko legeak bestela eginak dira, zuzen eta bidezidorren tranpa gabeko Konstituzioaren babespean behintzat, omen, baina gaur Corcuera-Legeak besterik erakusten digu, ministraria, erosotasuna aitzaki, bidezidorrak hartzeko tentazioan erori da. Beraz, demokraziaren jainkoak lagun gaitzala hemendik aurrera.